Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

9

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 30ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, Aiala Vidrio SA enpresari ingurumen-baimen bateratua ematen diona, Laudioko (Araba) udalerrian beirazko ontziak fabrika ditzan.

AURREKARIAK

2006ko irailaren 11n, Aiala Vidrio SA enpresak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Laudioko (Araba) udalerrian beirazko ontziak fabrikatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera honako dokumentazio teknikoa aurkeztu zuen:

– Oinarrizko proiektua (2006ko iraila).

– Dokumentazio konfidentziala (2006ko iraila).

– Eranskinak (2006ko iraila).

– Laburpen ez-teknikoa (2006ko iraila).

Erreferentziako baimena eskatzeko orduan, Aiala Vidrio SA enpresak, besteak beste, beirazko ontziak fabrikatzeko jarduera abiatzeko baimena zuen, 1995eko maiatzaren 8koa, jarduerarako baimena eskuratu ondoren lortutakoa. Era berean, enpresa sustatzaileak ondorengo baimenak zituen: hondakin arriskutsuak autokudeatzeko baimena, 1995eko apirilaren 21ekoa, udal-kolektorera isurtzeko baimena, 1993ko abenduaren 15ekoa eta hondakin arriskutsuen ekoizle izateko baimena, 2006ko ekainaren 23koa, eta ondorengo zabaltze eta berritzeak, hondakinen inguruan indarrean den araudiak ezarritakoari jarraituz.

2006ko irailaren 27an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektuaren gaineko eraginaren azterlana jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki, Laudioko Udalari, Iparraldeko Ur-konfederazioari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari kontsultatu zien.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

9

RESOLUCIÓN de 30 de abril de 2008, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se concede autorización ambiental integrada para la fabricación de envases de vidrio, promovida por Aiala Vidrio, S.A. en el término municipal de Llodio (Álava).

ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 11 de septiembre de 2006 Aiala Vidrio, S.A., solicitó ante el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco el otorgamiento de la autorización ambiental integrada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, para la actividad de fabricación de envases de vidrio en el municipio de Llodio (Álava). La solicitud se acompañaba de la siguiente documentación técnica:

– Proyecto básico (septiembre 2006).

– Documentación confidencial (septiembre 2006).

– Anexos (septiembre 2006).

– Resumen no técnico (septiembre 2006).

En el momento de la solicitud de la autorización de referencia, Aiala Vidrio, S.A. tenía, entre otras, licencia de apertura de fecha 8 de mayo de 1995 para la actividad de fabricación de envases de vidrio una vez otorgada la correspondiente licencia de actividad. Asimismo, la empresa promotora disponía de las correspondientes autorizaciones de autogestión de residuos peligrosos, de 21 de abril de 1995, autorización de vertido a colector municipal, de 15 de diciembre de 1993 y autorización de productor de residuos peligrosos, de 23 de junio de 2006 y posteriores ampliaciones y renovaciones, de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente en materia de residuos.

La Dirección de Calidad Ambiental con fecha 27 de septiembre de 2006 solicitó informes a diversos órganos con intervención en el procedimiento en orden a que por el órgano ambiental se acuerdara el trámite de información pública del proyecto, en concreto, se realizó consulta al Ayuntamiento de Llodio, la Confederación Hidrográfica del Norte y al Departamento de Sanidad de Gobierno Vasco.

2006ko abenduaren 26an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko maiatzaren 17an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Aiala Vidrio SA enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegazio-idazki bat aurkeztu dela egiaztatu da, eta modu laburtuan I. eranskinean jaso da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko otsailaren 26an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Laudioko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Iparraldeko Ur-konfederazioari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko apirilaren 15ean eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Aiala Vidrio SA enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

Con fecha 26 de diciembre de 2006, el órgano ambiental requirió al promotor que incorporara documentación adicional, completándose el expediente el 17 de mayo de 2007.

Una vez constatada la suficiencia de la documentación aportada, por resolución de 14 de noviembre de 2007, del Viceconsejero de Medio Ambiente, se acuerda someter a información pública, por un periodo de 30 días hábiles, el proyecto promovido por Aiala Vidrio, S.A. en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimasen oportunas, procediéndose a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del Territorio Histórico de Álava, ambas con fecha de 3 de diciembre de 2007. Igualmente se procede al anuncio pertinente en dos periódicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco con fecha de 2 de diciembre de 2007 y a efectuar la oportuna notificación personal a los vecinos colindantes.

Una vez culminado el trámite de información pública se constata que se ha presentado un escrito de alegaciones, que de forma resumida se recogen en el anexo I.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 17 y 18 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, la Dirección de Calidad Ambiental solicita el 26 de febrero de 2008 informe al Ayuntamiento de Llodio, al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y a la Confederación Hidrográfica del Norte, con el resultado que obra en el expediente.

Con fecha 15 de abril de 2008, y en aplicación del artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el conjunto del expediente es puesto a disposición de Aiala Vidrio, S.A. incorporando la propuesta de resolución elaborada por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, constituye el objeto de la misma evitar o, cuando ello no sea posible, reducir y controlar la contaminación de la atmósfera, del agua y del suelo, mediante el establecimiento de un sistema de prevención y control integrado de la contaminación, con el fin de alcanzar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto.

En consonancia con lo dispuesto en el artículo 3 del Real Decreto 509/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, se integran en la presenta autorización todos los elementos y líneas de producción que aun sin estar enumerados en el anexo 1 de la Ley 16/2002, se desarrollen en el lugar del emplazamiento de las instalaciones cuya actividad motivó su inclusión en el ámbito de aplicación de dicha ley, y guarden relación técnica con dicha actividad.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Aiala Vidrio SA enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsuak sortu eta autokudeatzeko baimena; udal-kolektorera isurtzeko baimena; eta ingurumen izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta hari aurrea hartzeari dagozkionak. Era berean, eskumeneko beste administrazio eta organismo batzuk kasuan kasu txostenak luzatuz izandako parte-hartzea egiaztatuko da espedientean.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplika dakizkiekeen gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Aiala Vidrio SA enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Laudioko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan da teknika onenen erabile-

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 16/2002, se somete a autorización ambiental integrada la construcción, montaje, explotación o traslado, así como la modificación sustancial, de las instalaciones en las que se desarrollen alguna de las actividades incluidas en el anejo 1. La presente autorización mantiene como finalidad básica, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11, la fijación de todas aquellas condiciones que garanticen el cumplimiento del objeto de la norma por parte de las instalaciones incluidas en su ámbito de aplicación, a través de un procedimiento que asegure la coordinación de las distintas Administraciones Públicas que deben intervenir en la concesión de dicha autorización para agilizar trámites y reducir las cargas administrativas de los particulares, a la par que viene a integrar en un solo acto de intervención administrativa las autorizaciones ambientales previstas en la legislación en vigor. En el caso de Aiala Vidrio, S.A. tales autorizaciones se circunscriben a la de productor y autogestor de residuos peligrosos, vertido a colector municipal y, entre otras determinaciones de carácter ambiental, las referidas a la materia de contaminación atmosférica y en materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo, constatando la participación en el expediente, a través de la emisión de los preceptivos informes, de otras administraciones y organismos competentes.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 16/2002, el procedimiento para el otorgamiento de autorización ambiental integrada sustituye al procedimiento para el otorgamiento de la licencia municipal de actividades clasificadas prevista en el Decreto 2414/1961, de 30 de noviembre, sobre Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas, salvo en lo referente a la resolución definitiva de la autoridad municipal. A estos efectos la autorización ambiental integrada, será, en su caso, vinculante para la autoridad municipal cuando implique la denegación de licencias o la imposición de medidas correctoras, así como en lo referente a aspectos medioambientales recogidos en el artículo 22 de la mencionada norma. Afirma el citado artículo 29 que lo anteriormente dispuesto se entiende sin perjuicio de las normas autonómicas sobre actividades clasificadas que en su caso fueran aplicables. En aplicación de las prescripciones transcritas, el procedimiento de autorización ambiental integrada referido a Aiala Vidrio, S.A. ha incluido el conjunto de trámites previstos al efecto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección de Medio Ambiente del País Vasco, incorporándose, con el resultado que obra en el expediente, los informes del Ayuntamiento de Llodio y de del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

Por último, en orden a determinar los valores límites de emisión de las sustancias contaminantes que puedan ser emitidas por la instalación, así como otras condiciones para la explotación de la misma a fin de garantizar una elevada protección del medio ambiente

ra. Zehazki, Europako Batzordearen 2001eko abenduko BREF «Reference Document on Best Available Techniques in the Glass Manufacturing Industry» txostenaren edukiak kontuan hartu dira. Gainera, araudi sektorialei dagokienez, kasu honetan hondakinak errausteari buruzko maiatzaren 30eko 653/2003 Errege Dekretua aplika daiteke.

Espedienteko txostenak eta aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Aiala Vidrio SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko apirilaren 14an emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta aplika daitekeen gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Laudioko (Araba) udalerriko Munegazo auzoa, 22. zenbakian helbide soziala duen eta IFK: A-01394261 zenbakia duen Aiala Vidrio SA enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, Laudioko udalerrian beirazko ontziak fabrikatzeko jarduerarako, eta Ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Era berean, Ingurumeneko Baimen Bateratu hau eman da, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 19. artikuluan jasotzen den bezala, ingurumen-alderdi guztiei dagokienez, eta ondorio horietarako, ebazpen honetan jasotzen diren baldintzak betetzen direla bermatzeko.

en su conjunto, en la formulación de la presente Resolución se ha tenido en cuenta el uso de las mejores técnicas disponibles. En particular se ha considerado el contenido del documento BREF de «Reference Document on Best Available Techniques in the Glass Manufacturing Industry», de fecha diciembre de 2001, de la Comisión Europea. Además, en lo que se refiere a las normativas sectoriales, en este caso resulta de aplicación, en especial, el Real Decreto 653/2003, de 30 de mayo, sobre incineración de residuos.

Una vez analizados los informes obrantes en el expediente y las alegaciones formuladas, se suscribió propuesta de resolución, a la que se incorporaron las condiciones aplicables al proyecto promovido por Aiala Vidrio, S.A.

Culminadas, de acuerdo con lo expuesto, las tramitaciones arriba referidas, cumplido el trámite de audiencia contemplado en el artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación y dada la competencia de este órgano para la concesión de la presente autorización ambiental integrada de conformidad con lo previsto en el artículo 13 de la mencionada norma y el artículo 9 del Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Vistos la propuesta de resolución de 14 de abril de 2008 del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental, modificado por la Ley 6/2001, de 8 de mayo, por la que se modifica el anterior, el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para su ejecución, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás normativa de aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Conceder a Aiala Vidrio, S.A. con domicilio social en el Barrio Munegazo, 22 del término municipal de Llodio (Álava) y CIF: A-01394261, Autorización Ambiental Integrada para la actividad de fabricación de envases de vidrio, en el término municipal de Llodio, con las condiciones establecidas en el apartado Segundo de esta Resolución.

Asimismo la presente Autorización Ambiental Integrada se concede sin perjuicio del resultado del trá-

kuluaren arabera, Arroko Erakundeak landu beharreko txostenaren emaitzei kalterik egin gabe.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 3.3. kategorian jasota dago, «Beira, beira-zuntza barne, fabrikatzeko instalazioak, eguneko 20 tona baino gehiago galdatzeko gaitasuna dutenak».

Aiala Vidrio SA enpresaren instalazioak Munegazo auzoan kokatzen dira, Laudioko (Araba) udalerrian, eta guztiz zolatutako 221.067 m² -ko azalera betetzen dute; horietatik 81.253 m² eraikita daude.

Instalazioak garatzen duen jarduera beira hutsaren (beirazko ontziak) fabrikazioa da. Aiala Vidrio SA enpresak 600 produktu inguru eta eskaintza anitza du. Izan ere, elikadura-produktuak paketatzeko ia merkatu guztietan dago; hala nola, ura, freskagarriak, zukuak, garagardoa, likoreak, aperitiboak, olioak, ardoak, ozpinak eta kontserbak.

Eguneroko produkzio-gaitasuna fabrikatzen ari den ereduaren araberakoa da, izan ere, botila txikien kasuan kopurua botilena baino handiagoa da. Azaletik, eguneroko produkzioa 2.000.000 botila ingurukoa dela esan daiteke eta horietatik 400.000 esportatzen dira (esportazioaren % 15-20).

Bestalde, Aiala Vidrio SA enpresak beira galdatzeko hiru birsorkuntza-labe ditu: bata, beira zuria ekoizteko eta beste bi kolorezko beira fabrikatzeko, berde kolorekoa bereziki. Beira zuria galdatzerakoan ezin da lehengai gisa kanpoko kroskoa erabili, sortutako beiraren koloreztatze-arazoak direla-eta. Kanpoko beira-kroskoa hornitzeko prozesuek ez dute koloreka bereizten eta merkatuan ezin da beira zuriaren kroskoa bakarrik topatu.

Fabrikazio-prozesuak honako etapak ditu: lehengaiak jaso eta prestatzea, galdaketa, konformazioa eta hozketa eta suberaketa.

Lehengaiak jasotzea kamioien zirkulazioa errazten duen lursailean gauzatzen da. Kamioiek beren edukia husten dute, hainbat biltegiratze-tobera betez.

Lehengaiak deskargatzeko eremuek mahuka-iragazkiak dituzte, eta horiek abian jartzen dira lehengaiak garraiatzen dituen kamioiak instalazioan deskargatzen duen bakoitzean.

Beharrezko lehengai guztiak uhal garraiatzaile batean deskargatzen dira; laborategiak zehaztutako kopurua izan behar da. Uhal garraiatzaileak tobera-igogailu batean isurtzen du eta bertatik, lehengaia nahasgailuen pisuraino eramaten da. Lehengaia nahastu egiten da, labean galdatu aurretik.

mite de informe del Organismo de Cuenca establecido en el artículo 19 de la citada Ley 16/2002, de 1 de julio.

La actividad se encuentra incluida en la categoría 3.3. «Instalaciones para la fabricación de vidrio incluida la fibra de vidrio, con una capacidad de fundición superior a 20 toneladas por día» del anexo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.

Las instalaciones de Aiala Vidrio, S.A. se encuentran en el Barrio Munegazo, en el término municipal de Llodio (Álava), ocupando una superficie totalmente pavimentada de 221.067 m², de los cuales 81.253 m² se encuentran edificados.

La actividad que en ella se desarrolla es la fabricación de vidrio hueco (envases de vidrio). Aiala Vidrio, S.A. dispone de cerca de 600 productos y una gran diversificación de oferta ya que está presente en todos los mercados de envasado de productos alimentarios como agua, refrescos, zumos, cerveza, licores, aperitivos, aceites, vinos, vinagres y conservas.

La capacidad diaria de producción depende del modelo que se esté fabricando ya que en el caso de los botellines la cantidad resulta mayor que para las botellas. A grandes rasgos, puede decirse que la producción diaria ronda los 2.000.000 de botellas, de las que alrededor de 400.000 se exportan (15 - 20% de exportación).

Por otro lado, Aiala Vidrio, S.A. dispone de tres hornos regenerativos de fusión de vidrio: uno para la producción de vidrio blanco y otros dos para la fabricación de vidrio de color, principalmente verde. La fusión del vidrio blanco no permite el uso de casco externo como materia prima, debido a problemas de coloración del vidrio producido. Los procesos de suministro de casco de vidrio externo no separan por colores y no es posible encontrar en el mercado casco de vidrio blanco en exclusiva.

El proceso de fabricación, comprende las siguientes etapas: recepción y preparación de materia prima, Fusión, Conformado y enfriamiento y recocido.

La recepción de las materias primas se realiza en una superficie de terreno suficiente como para facilitar el tráfico de los camiones. Éstos descargan su contenido llenando una serie de tolvas de almacenamiento.

Las zonas de descarga de materias primas están provistas de filtros de mangas que se ponen en funcionamiento cada vez que se realiza la descarga en planta del camión que las transporta.

Todas las materias primas necesarias se descargan sobre una cinta transportadora en la cantidad especificada por el laboratorio. La cinta transportadora desemboca en una tolva-ascensor que conduce la materia prima hasta el piso de mezcladoras donde se realiza el mezclado de materia prima antes de su fusión en horno.

Labeetan gertatzen den galdatze-prozesuan barrena, beiraztatzeko nahasketaren osagaiek eraldaketa kristalinoak, nahasketaren hezetasunaren eta gatzen hidratazio-uraren lurrunketa, karbonatoen disoziazioak eta bestelako erreakzio kimikoak jasaten dituzte; erreakzio hauetako produktuak sortzen ari den beiranahasketan disolbatzen dira.

Osagaien arteko erreakzioak tenperatura baxutan gertatzen dira, egoera solidoan daudenean eta prozesuak mantso jarraitzen du, galdatze-tenperaturara eta horrekin batera, urtze-fasera iritsi arte.

Urtutako beira labetik atera eta beiraren tenperatura egokitzen den gunera pasatzen da. Horretarako, hainbat kanaletatik pasatzen da; horietan, tenperatura gas naturalaren bidez elikatutako erregailuen eta hozketarako irekiduren bidez lortzen da. Hortik aurrera, beira elikatzaile batera iristen da, eta bertatik, ontziak sortzeko makinetan uzten da (Konformazioa).

Makinara erortzeko orduan tantak aurretiazko moldeetan sartzen dira, eta beirazko ontzia izango denari «aurretiazko forma» ematen diote. Eta bertatik akaberako moldeetan uzten dira, beirak behin betiko forma hartuz.

Botilak fabrikatzeko erabilitako moldeak aldizka mantendu behar dira, bizarrak eta akatsak ezabatze aldera. Granailatze-prozesua nola moldeen mantentzelanak sortzen den hauts metalikoa jasotzen duen mahuka-iragazki batera konektatuta daude. Mahuka-iragazkiak kanpora isurtzen diren isurtzeak arazten ditu.

Halaber, gorpuzkiak eta moldekatzeko makinen zati bat estaltzen dituen grafito-geruza ezabatzen du, pieza horiek produktu alkalinozko bainu urtsu batean murgilduz, lurrunak (garbiketa kimikoa) sortzen dituen tenperaturan (85º C).

Moldekatzeko makinen moldeak eta piezak, konpondu ondoren, grafitozko esekidura batekin disolbatzaileetan lakatu behar dira. Ur-errezela duen pinturagela batean gauzatzen da prozesua.

Suberaketa-kutxara pasatu aurretik eta botila akaberako moldetik atera ondoren, beroan tratatzen da, eztainu tetrakloruroa ontziaren kanpoko gainazalean hauts bihurtuz. Honela, metalezko geruza baten deposizioa lortzen da, ontziak degradazioarekiko duen gainazaleko erresistentzia areagotzen duena.

Jarraian, uhal metalikoetatik suberaketa-kutxetara garraiatzean barrena, ontziak bat-batean hozten dira eta horrek beiran tentsioak sortzen ditu, hauskorragoa bilakatuz. Tentsio horiek suberaketa-prozesuan zehar ezabatzen dira.

Horretarako, lehenik tenperatura 550-580º C-ra arte igotzen da eta ondoren, kontrolatutako hozketa egiten da, giro-tenperatura erdietsi arte.

Durante el proceso de fusión realizado en los hornos, los componentes de la mezcla vitrificable experimentan una serie de transformaciones cristalinas, evaporación de humedad de la mezcla y del agua de hidratación de las sales, disociación de carbonatos y otras reacciones químicas; los productos de estas reacciones se van disolviendo en la mezcla vítrea en formación.

Las reacciones entre los componentes se inician a bajas temperaturas mientras se encuentran todavía en estado sólido y el proceso continúa lentamente hasta que se alcanza la temperatura de fusión y con ella la fase fundida.

El vidrio fundido sale del horno y entra en una zona en la que se acondiciona la temperatura del mismo. Para ello pasa por unos canales, en los que la temperatura se logra por medio de unos quemadores alimentados con gas natural, y unas aperturas de refrigeración. A partir de aquí el vidrio llega a un alimentador desde el cual se va depositando en las máquinas de formación de envases (Conformado).

Las gotas en su caída a la máquina se introducen en los moldes preliminares que dan la «preforma» a lo que luego va a ser el envase de vidrio. Y desde aquí se depositan en los moldes terminadores, donde el vidrio adquiere la forma definitiva.

Los moldes empleados para la fabricación de las botellas necesitan un mantenimiento periódico para eliminar rebabas y defectos. Tanto el proceso de granallado como el mantenimiento de moldes están conectados conjuntamente a un filtro de mangas que recoge el polvo metálico que se genera, depurando las emisiones que se emiten al exterior.

Asimismo, para la eliminación de la capa de grafito que recubre las canaletas y parte de máquinas de moldeo mediante la inmersión de estas piezas en un baño acuoso de producto alcalino a temperatura (85º C) que genera vapores (limpieza química).

Los moldes y piezas de las máquinas de moldeo tras su reparación se deben lacar con una suspensión de grafito en disolventes. El proceso de realiza en una cabina de pintura dotada de cortina de agua.

Antes de pasar al arca de recocido y una vez que la botella ha salido del molde terminador, se trata en caliente pulverizando tetracloruro de estaño sobre la superficie exterior del envase. Así, se consigue la deposición de una película metálica que aumenta la resistencia superficial del envase a la degradación.

A continuación, durante el transporte sobre las cintas metálicas hacia las arcas de recocido, los envases se enfrían bruscamente, lo cual genera tensiones en el vidrio, volviéndolo más frágil. Estas tensiones van a ser eliminadas durante el proceso de recocido.

Para ello primero se aumenta la temperatura hasta 550-580º C y posteriormente se realiza un enfriamiento controlado hasta alcanzar una temperatura ambiente.

Suberaketaren ostean, ontziek hotzean tratamendua jasaten dute. Beirazko ontzien gainean soluzio bakterizida bat hauts bihurtzean eta polietilenoaren sakabanaketan oinarritzen da tratamendua. Horrela, botilek inpaktuarekiko duten erresistentzia areagotzen da eta botilen labaingarritasuna hobetzen da.

Azkenik, botilak kontrol eta aukeraketa gunera bideratzen dira; ondoren, paletetan jarri eta biltegiratzen dira.

Beira fabrikatzeko behar den energia, kanpoko enpresek hornitutako energia termikotik eta energia elektrikotik dator. Erregai gisa gas naturala erabiltzen da prozesuan, nahiz eta prozesu laguntzaileetan gasolioa erabili (orgatilentzako erregaia).

Beira fabrikatzeko behar diren lehengaiak kareharria, dolomia, sodio karbonatoa, sulfatoak, harea eta beira-kroskoa, barneko (instalazioaren beraren erreusetatik datorrena) zein kanpoko jatorria duena, dira.

Edateko uraren hornikuntza Laudioko udal-sarearen bidez gauzatzen da; industrian erabiltzeko ura, berriz, Altube errekatik dator. Bereziki makinak hozteko erabiltzen da.

Instalazioan atmosferara egiten diren isurtzeak bereziki urtzeko labeei lotutako hiru isurtze-fokuetatik datoz. Gainera, ondorengo prozesuei lotutako beste 8 isurtze-foku daude: ontzien estaldura (2), suberaketakutxa (3), granailatzea eta moldeen mantentze-lanak (1), moldekatzeko makinaren garbiketa kimikoa (1) eta pintura-gela (1). Bestalde, instalazioan sei foku ez-sistematiko daude: bi soldatze-foku, larrialdietako multzo elektrogenoen hiru foku eta «orgatilak mantentzeko» foku bat. Gainera, lehengaiak eta enbalajeak jasotzeko eta produktuak biltegiratzeko eragiketetan barrena isurtze barreiatuak sortzen dira.

Jarduerak hozketa-zirkuitu itxiei lotutako isurketak sortzen ditu, komun eta aldageletatik datozen ur beltzez eta bildutako uren aurretiazko tratamendutik eta alderantzizko osmositik datozen industria-urez gain. Ur horiek husteko, Nerbioi ibaira isurtzen duen zeharkako puntua dago, Laudioko udalerriko kolektoresarearen bidez isurtzen duena.

Beirazko ontziak fabrikatzeko prozesuak arrastatzaileen lohiak izeneko hondakin arriskutsua sortzen du, eta zehazki, solido esekiak eta makinak lubrifikatzeko arraste-olioak dekantatzen dituzten andeletatik sortzen dira. Hondakin horiekin batera, eragiketa orokorretan sortzen diren olio erabiliak eta taladrina erabiliak pilatzen dira dekantazio-andelean. Hondakin hau zuzenean jasotzen da dekantazio-putzuetatik,

Tras el recocido, los envases sufren un tratamiento en frío, que consiste en la pulverización de una solución bactericida y una dispersión de polietileno sobre los envases de vidrio, con los que se aumenta la resistencia de las botellas al impacto y se mejora la lubricidad de las mismas.

Finalmente, las botellas se dirigen a la zona de control y selección, tras lo que se paletizan y almacenan.

La energía necesaria para la fabricación de vidrio proviene de la energía térmica y la energía eléctrica suministradas por empresa externa. Como combustible de proceso se emplea gas natural, aunque se emplea gasóleo para procesos auxiliares (combustible para carretillas).

Las materias primas necesarias para la fabricación de vidrio son caliza, dolomía, carbonato sódico, sulfatos, arena y casco de vidrio tanto de origen interno (proveniente de los rechazos de la propia planta) como externo.

El suministro de agua potable de se efectúa mediante la red municipal de Llodio, mientras que el agua de uso industrial, utilizada principalmente para la refrigeración de las máquinas, proviene del arroyo Altube.

En la planta, las emisiones a la atmósfera provienen principalmente de los tres focos de emisión asociados a los hornos de fusión. Además existen otros 8 focos emisores correspondientes a los procesos de: recubrimiento de envases (2), arca de recocido (3), granalladora y mantenimiento de moldes (1), limpieza química de la máquina de moldes (1) y cabina de pintura (1). Por otro lado, existen en la instalación seis focos no sistemáticos correspondientes a dos focos de soldadura, tres de grupos electrógenos de emergencia y uno de «mantenimiento de carretillas». Además se generan emisiones difusas durante las operaciones de recepción de materias primas y embalaje y almacenamiento de productos.

La actividad genera vertidos asociados a los circuitos cerrados de refrigeración, además de las aguas fecales provenientes de servicios y vestuarios y las aguas industriales procedentes del pretratamiento de las aguas captadas y la ósmosis inversa. Para la evacuación de estas aguas, se cuenta con un punto de vertido indirecto al río Nerbioi, a través de la red de colectores del municipio de Llodio.

El proceso de fabricación de envases de vidrio genera como residuo peligroso los lodos de arrastradores, que provienen, concretamente, de los depósitos en los que decantan los sólidos en suspensión y los arrastres de aceite de lubricación de máquinas. Junto con estos residuos se agrupan en el depósito de decantación los aceites usados y las taladrinas usadas que se generan en operaciones generales. Este residuo

beira urtzeko labeetan autokudeatu daitezen; «arrastatzaileen lohiak, olioa eta taladrina» epigrafea dute.

Instalazioan sortutako hondakin ez-arriskutsuen artean, txatarra, papera eta kartoia eta beira daude.

Bestalde, Proiektuaren barne daude Teknika Onenen Erabilera (TOE), ondorengo erreferentziako dokumentuetan adierazitakoaren arabera: Reference Document on Best Available Techniques in the Glass Manufacturing Industry (2001eko abendua eta egun ikuskatzen ari direna); eta Guía de Mejores Técnicas Disponibles en España en la fabricación de vidrio (2003) izeneko gida. Atmosferara egiten diren isurtzeen foku nagusietan hartu diren neurriak bat datoz erreferentziako dokumentuek identifikatzen dituzten lehen mailako neurriekin. Hain zuzen ere, honako neurriez ari gara: solido hautsak silo itxietan biltegiratzea, materia osagarrien biltegi estaliak, lehengaien uhal garraiatzaileak estaltzea, labea elikatzeko zona egokitzea, eraikinak egokitzea, beira berritzeko labeak erabiltzea, lehengaia erabiliz beira-kroskoa pixkanaka handitzea, boosting elektrikoa, labearen geometria diseinatzea, garraren ezaugarriak, erregailuen kokapena gasaren erreketa optimizatzeko, fuela erabili ordez gas naturala erabiltzea, airea/erregaia erlazioa maila estekiometrikoetaraino murriztea, labe eta ganberetako paretak zigilatzea, NOx baxuko erregailuak, eraginkortasun handiko material erregogorrak erabiltzea eta hozte-ganberak leheneratzeko sistemak hobetzea. Halaber, ondorengo bigarren mailako neurriak, atmosferara egiten diren partikulen isurtzeak murrizteko: lehengaiak biltegiratzeko siloetako hautsa xurgatzen duten tximiniekin konektatutako mahuka-iragazkia eta granailatze-prozesuari eta moldeen mantentzelanei konektatutako mahuka-iragazkia.

Bigarrena.– Honako baldintza eta eskakizunak ezartzea, Aiala Vidrio SA enpresak, Laudioko udalerrian sustatzen duen beirazko ontziak fabrikatzeko jarduera ustiatzeko:

A) Erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da 600.000 euroko zenbatekoaz, ondorengoak estaliko dituena: hirugarren pertsonei edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatiko kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz ingurumen aldatua konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

B) Fidantza-prestazioa hogeita hamar mila (30.000 €) euroko zenbatekoaz, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko oinarrizko araudia onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 28. artikuluaren 2. atalean ezarritako baldintzetan, eta artikulu horren 3. atalean aurreikuse recoge directamente de las balsas de decantación para su autogestión en los hornos de fusión de vidrio bajo el epígrafe «lodos de arrastradores, aceite y taladrina».

Entre los residuos no peligrosos generados en la instalación, se encuentran la chatarra, el papel y cartón y el vidrio.

Por otro lado, el Proyecto incorpora técnicas identificadas como Mejores Técnicas Disponibles (MTDs), de acuerdo con los siguientes documentos de referencia: Reference Document on Best Available Techniques in the Glass Manufacturing Industry (diciembre de 2001 y actualmente en revisión); y la Guía de Mejores Técnicas Disponibles en España en la fabricación de vidrio (2003). Las medidas implantadas en los principales focos de emisión a la atmósfera responden a todas las medidas primarias identificadas en los documentos de referencia y son las siguientes: almacenamiento de sólidos pulvurentos en silos cerrados, almacenamientos cubiertos de materias auxiliares, cubrimiento de cintas transportadoras de materias primas, acondicionamiento de la zona de alimentación del horno, acondicionamiento de edificios, uso de hornos regenerativos, aumento progresivo del casco de vidrio como materia prima, boosting eléctrico, diseño de la geometría del horno, condiciones de llama, posicionamiento se quemadores para optimizar la combustión del gas, sustitución de fuel por gas natural, reducción de la relación aire/combustible a niveles estequiométricos, sellado de las paredes de hornos y cámaras, quemadores de bajo NOx, uso de materiales refractarios de elevada eficiencia y mejora de los sistemas de recuperación de las cámaras de regeneración. Asimismo, de las siguientes medidas secundarias para minimizar las emisiones de partículas a la atmósfera: filtro de mangas que conecta las chimeneas de aspiración de polvo de los silos de almacenamiento de materias primas y filtro de mangas conectado al proceso de granallado y mantenimiento de moldes.

Segundo.– Imponer las siguientes condiciones y requisitos para la explotación de la actividad de fabricación de envases de vidrio, promovido por Aiala Vidrio, S.A. en el término municipal de Llodio:

A) Deberá constituirse un seguro de responsabilidad civil por una cuantía de 600.000 euros que cubrirá el riesgo de indemnización por los posibles daños causados a terceras personas o a sus bienes y los costes de reparación y recuperación del medio ambiente alterado, derivados del ejercicio de la actividad objeto de autorización.

B) Prestación de fianza por un importe de treinta mil (30.000 €) euros en los términos establecidos en el artículo 28, apartado 2, del Real Decreto 833/1988 de 20 de julio, por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución de la Ley 20/1986, básica de residuos tóxicos y peligrosos, que podrá constituirse en

sitako edozein modutan eratu ahal izango da. Fidantza horren zenbatekoa hondakinak tratatzeko gehienezko ahalmenaren arabera zehazten da (3.000 m^3/urtea).

Fidantza horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera (KPI) handituz.

C) Hondakinen errausketari buruzko maiatzaren 30eko 653/2003 Errege Dekretuaren 10.d artikuluan xedatutakoa betez, instalazioaren funtzionamenduagatik eta kudeaketagatik eratorritako balizko erantzukizun zibil edo penalak kontuan hartu gabe, instalazioaren kudeaketarako pertsona arduradun bat izendatu beharko da. Aiala Vidrio SA enpresak Ingurumeneko Sailburuordetzari pertsona arduradun horren datu hauek jakinaraziko dizkio: izen-abizenak, helbidea eta titulazioa, eta datu horien inguruan gerta litezkeen aldaketak.

D) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean den araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

D.1.– Hondakinak jaso, biltegiratu eta erregistratzeko baldintzak eta kontrolak.

Beira fabrikatzeko jardueran, Aiala Vidrio SA enpresak bere instalazioetan sortutako hondakinak erraustuko ditu, hala nola, arrastatzaileen lohiak, olioa eta taladrina (EHZ 16 07 08).

D.1.1- Hondakinak onartzeko baldintzak.

«Arrastatzaileen lohiak, olioa eta taladrina» hondakinaren autokudeaketa ondorengo baldintzak jarraituz egingo da:

a) Beira, ura, olioak eta klororik ez duten taladrinen nahasketaz osatutako eta ehuneko 0,005 (50 ppm) baino PCB/PCT kopuru txikiagoa duen hondakina beira urtzeko labeetan autokudeatuko da. Inolaz ere ez du gaindituko urteko gehienezko ahalmena; 3.000 m^3/urtean.

b) Urtero karakterizazio-analisia egingo da, Aiala Vidrio SA enpresaren instalazioetan tratamendua gauzatzeko aukera dagoela ziurtatu ahal izateko.

c) Hondakinak osatzen dituzten olio eta taladrinen konposizioa modu funtsezkoan eraldatzen direnean, karakterizazio-analisi berriak egin beharko dira eta horiek kudeatu aurretik, Ingurumeneko Sailburuordetzara bidali beharko dira, hark onar ditzan.

d) Urtzeko labeetan ezingo dira inolaz ere baimen honetan adierazitakoen bestelakoak diren hondakinak.

cualquiera de las formas previstas en el apartado 3 de dicho artículo. El importe de dicha fianza se determina en función de la capacidad máxima de tratamiento de residuos (3.000 m^3/año).

El importe de dicha fianza podrá ser actualizada anualmente, incrementándose en función del Índice de Precios al Consumo (IPC) de los 12 meses anteriores.

C) En cumplimiento de lo establecido en el artículo 10.d del Real Decreto 653/2003, de 30 de mayo, sobre incineración de residuos, con independencia de las posibles responsabilidades civiles o penales que pudieran derivarse como consecuencia del funcionamiento y gestión de las instalaciones, se dispondrá de una persona específicamente responsable de la gestión de la instalación. Aiala Vidrio, S.A. remitirá a la Viceconsejería de Medio Ambiente los siguientes datos de la citada persona responsable: nombre y apellidos, domicilio y titulación, así como las modificaciones que puedan tener lugar en relación con dichos datos.

D) Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor ante esta Viceconsejería de Medio Ambiente, de acuerdo a la normativa vigente y con lo establecido en los apartados siguientes:

D.1.– Condiciones y controles para la admisión, almacenamiento y registro de residuos.

Aiala Vidrio, S.A. procederá en su actividad de fabricación de vidrio a la incineración de residuos producidos en sus propias instalaciones, consistentes en lodos de arrastradores, aceite y taladrina (LER 16 07 08).

D.1.1.– Condiciones de admisión de residuos.

La autogestión del residuo «Lodos de arrastradores, aceite y taladrina», se realizará bajo los siguientes condicionantes:

a) El residuo consistente en una mezcla de vidrio, agua, aceites y taladrinas exentas de cloro, con un contenido en PCB/PCT inferior al 0,005 por 100 (50 ppm) en peso, será autogestionado en los hornos de fusión de vidrio sin rebasar en ningún caso la capacidad máxima anual fijada en 3.000 m^3/año.

b) Anualmente, se someterá a un análisis de caracterización que permita asegurar la posibilidad de tratamiento en las instalaciones de Aiala Vidrio, S.A.

c) Siempre que se modifiquen de forma sustancial la composición de los aceites y taladrinas que constituyen los residuos se realizarán nuevos análisis de caracterización que deberán remitirse a la Viceconsejería de Medio Ambiente para su aprobación, previa gestión de los mismos.

d) Bajo ninguna circunstancia podrán gestionarse en los hornos de fusión residuos que difieran de los señalados en esta autorización.

e) Urtero autokudeatutako hondakinaren berogaitasuna zehaztuko da.

Atal honen arabera urtero igorri behar den informazioaz gain, autokudeatutako hondakinaren berogaitasunari buruzko datua Ingurumeneko Sailburuordetza honetara bidali beharko da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazten duen ebazpena bidali aurretik.

D.1.2.– Hondakinak biltegiratzeko baldintzak.

Hondakina biltegiratzeko andel estankoan gordeko da, eta biltegiratutako kantitatea egunero kontrolatuko da.

Hondakina biltegiratzeko guneak lurzoru estankoa eta atxikipen-kubeta izango ditu, gerta daitezkeen isurien ondoriozko isurketak kanpora irtetea saihesteko.

D.1.3.– Autokudeatutako hondakinen kontrolaren erregistroa.

Ebazpen honetako D.2.4.1.p atalean aipatzen den sortutako hondakin arriskutsuen erregistroan, labeetan autokudeatutako «arrastatzaileen lohiak, olioa eta taladrina» hondakinaren dosifikazio- eta tratamendu-eragiketak azaldu behar dira. Gutxienez, ondorengo datuak agertu behar dira:

a) Kudeatutako hondakinen kopuruak, izaera, konposizioa eta identifikazio-kodea.

b) Hondakinen aldizkakotasuna eta dosifikazio-maila.

c) Tratamendu-eragiketak eta kontrolerako parametroak.

d) Tratamenduaren ondorioz sortutako hondakinen kopurua, izaera, konposizioa eta identifikazio-kodea.

e) Horiek nola kudeatu diren, datak eta helmugaren identifikazio-datuak.

D.2.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

D.2.1.– Hondakinak errausteko labeen funtzionamenduaren baldintzak.

a) Hondakinak ezingo dira erraustu, ondorengo baldintzak bete ezean:

– Errekuntza-airearen azken injekzioaren ondoren, labearen egoera termikoaren kontrol-parametroek egiaztatu beharko dute prozesutik sortutako gasen tenperatura 2 segundotan 850º C baino handiagoa dela, baldintza txarrenetan ere. Klorotan substantzia organohalogenatuen % 1etik gora duten hondakin arriskutsuak errausten diren kasuetan, labearen tenperatura 1.100º C-raino igo behar da, gutxienez bi segundotan zehar.

e) Anualmente, se determinará el poder calorífico del residuo autogestionado.

Sin perjuicio de la remisión anual de la información que deberá aportarse conforme a este apartado, el dato sobre el poder calorífico del residuo autogestionado se remitirá a esta Viceconsejería de Medio Ambiente con anterioridad a la emisión de la resolución por la que se declare efectiva la autorización ambiental integrada.

D.1.2.– Condiciones de almacenamiento de residuos.

El residuo se almacenará en depósito estanco de almacenamiento donde se llevará un control diario de la cantidad almacenada.

El área de almacenamiento del residuo dispondrá de suelo estanco y cubeto de retención a fin de evitar el vertido al exterior de eventuales derrames.

D.1.3.– Registros de control de los residuos autogestionados.

En el registro de residuos peligrosos producidos al que se hace referencia en el apartado D.2.4.1.p de esta Resolución se harán constar las operaciones de dosificación y tratamiento del residuo autogestionado «lodos de arrastradores, aceite y taladrina» en los hornos, debiendo figurar en él al menos los siguientes datos:

a) Cantidades, naturaleza, composición y código de identificación de los residuos gestionados

b) Periodicidad y grado de dosificación de los mismos

Operaciones de tratamiento y parámetros de control.

c) Cantidades, naturaleza, composición y código de identificación de los residuos resultantes del tratamiento.

d) Gestión dada a los mismos, fechas y datos identificativos del destino.

D.2.– Condiciones generales para el funcionamiento de la instalación.

D.2.1.– Condiciones de funcionamiento de los hornos para la incineración de residuos.

a) No podrá procederse a la incineración de residuos si no se cumplen las siguientes condiciones:

– Que los parámetros de control del estado térmico del horno permitan verificar que, tras la última inyección de aire de combustión, incluso en las condiciones más desfavorables, la temperatura de los gases derivados del proceso es superior a 850º C durante 2 seg. En el supuesto de que se incineren residuos peligrosos que contengan más del 1% de sustancias organohalogenadas, expresadas en cloro, la temperatura del horno deberá elevarse hasta 1.100º C, al menos durante dos segundos.

– Labearen errekuntzaren kontrol-parametroek atmosfera oxidatzailea dagoela egiaztatu behar dute.

b) Abian jartzerakoan, hondakinak ezingo dira erraustu beharrezko errekuntza-tenperaturara iritsi arte, lehen aipatutako egoerari une oro eusten zaiola ziurtatzeko.

c) Sistema automatiko bat egongo da, hondakinen dosifikazioa egoera hauetakoren batean eragotziko duena:

1.– Abian jartzean, 850º C-ko tenperaturara iritsi arte.

2.– 850º C-ko tenperatura ez dagoenean.

